

 AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H	IL0140	Gizarte-bazterkeriaren balioespena
---	---------------	---

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Pertsona batzuek bizi duten egoera da, euren bizitza eta bizikidetzak baldintzek, denboran zehar irauten duten gabezia ugariren eraginak jasaten dituztenean, eta horiek guztiak metatzean, baliabide pertsonalekin, harremanei buruzkoekin eta materialekin zuzenean erlazionatuta dagoen gizarte bazterketa egoera sortzen dituztenean.

NORK ESKA DEZAKE?

Amorebieta-Etxanon erroldatuta dagoen eta gizarte bazterketa egoeran bizi den edozeinek edo bere lege ordezkariak.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E072 Gizarte bazterkeriaren ebaluazioa egiteko eskabidea](#)
- Nortasun Agiri Nazionala, Pasaporte edo Bizileku Txartela.
- [Diru-sarreraren aitortpena](#).
- [Osasun txostena](#).
- Hala denean, Egonkortasun Kliniko Txostena.
- Datuen babesa eta baimena.

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Udaletxea](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Ordutegia: 7:30 - 15:00

Telematikoki:

- [Udalaren web orrian](#)

Posta arrunta:

- Udaletxeko posta arrunta
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO

ZENBAT KOSTATZEN DA?

Kudeaketaren kostua Udalak hartuko du bere gain.

PROZEDURAREN EPEA

Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: 6 hilabete
Isiltasun-administratiboaren izaera: Aurkakoa

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa](#) 22. artikulua 2.1. atala
- [385/2013 Dekretua, uztailaren 16koa, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen duena](#)
- [353/2013 Dekretua, maiatzaren 28koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoa](#)

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

1. Hitzordua Gizarte Langilearekin.

NORK ONARTU BEHAR DU?

Bizkaiko Foru Aldundia

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Gizarte ekintza - Gizarte Zerbitzuak

OHARRAK